

Ginea Bissauko Osasun-Sistema Publikoa
sendotzeko lankidetzaren teknika

PROGRAMAREN

LEHEN URTEAN LEHENETSITAKO ESKU-HARTZE ARLOAK



BARNE-MEDIKUNTZA

2023ko urtarrila eta maiatza bitartean, asma, HTA eta diabetesaren kanpo-kontsultak finkatu dira, eta haietako bakoitzean, batez beste, 40 eta 55 paziente artean izaten dira hilean.

2022ko martxoaz geroztik, Barne-medikuntzan aditua den pertsona bat sartu da Zerbitzuaren dinamikan, eta bertako osasun-langile profesionalekin batera lan egin du ospitalizazio-plantari laguntzeko, protokoloak prestatzeko, etengabeko prestakuntzako saio klinikoak egiteko, etab. Honako protokolo hauek landu dira: konbultsioak, beherakoak, malaria, hipertentsio arteriala (HTA), asma, diabetesa, miokardioko infartua, sexu-transmisioko infekzioak, GIBarekin lotutako infekzio oportunistak eta minaren kontrola, besteak beste. Proba diagnostikoak eta ohiko tratamenduak estandarizatu dira, eta, aldi berean, funtsezko sendagaiak beti eskuragarri egotea bermatu da.



LARRIALDIAK

Larrialdietako Zerbitzuari ere etengabe lagundu zaio, Barne-medikuntzan edo Larrialdietan espezialista den mediku batekin. Bereziki interesatuta eta inplikaturatuta dauden 3 medikurekin lan egin du, arrazoibide kritikoa sustatuz, diagnostiko diferentziala zabalduz eta tratamenduak susmo diagnostikoetara egokituz eta beharrezkoak ez

diren sendagaiak saihestuz. Hainbat prestakuntzaren ondoren, ohiko tresna bihurtu da elektrokardiograma (EKG), eta antibiotikoen eta fluidoterapiaren erabilera egokia indartu da. Era berean, pazienteen zirkuituak definitzen joan dira larrialdiaren, ospitalizazio-gelen eta bloke kirurgikoaren artean.



ERIZAINTZA

Erizaintza funtsezko arloa da ospitalearen funtzionamenduan, baina bereziki zaila da motibazio urriagatik, prestakuntza-mailagatik, hizkuntza- eta kultura-oztopengatik, pertsonal fakultatiboaren artean dagoen harreman eskasagatik, ospitaleratutako paziente kopuru handiagatik, erabilitako dokumentuen estandarizazio urriagatik eta lan-errutinengatik eta erizaintzako postuak normalean itxita egoten direlako. Hori dela-eta, nekez egoten dira eskuragarri pazienteentzat eta senideentzat.

Jardunbide egokiak, plantako errutinak eta dokumentu ofizialak (historia klinikoa, erregistro-orriak, bilakaera eta tratamendua) zabaltzeko lan egin dugu, eta medikuntzako eta erizaintzako langileen arteko harremana sendotzen saiatu gara, osasun-arretaren funtsezko zutabe gisa.


Sendaketa-gelak 120 paziente baino gehiago artatzen ditu hilero, kontrol ambulatorko pasa daitezkeen ospitaleratutako pazienteen jarraipena egitea ahalbideratuz.

Lan egiten dugun zerbitzuetan bilduko ditugu ahaleginak, hau da, oraingoz bederen, Medikuntza eta Kirurgiako ospitalizazio-geletan eta Larrialdietan.

2022ko urritik 2023ko maiatzera bitartean, ebakuntza-gelako instrumentista batzuen laguntza izan

dugu, blokeko erizaintzako ikuskatzailearekin batera, eta honako hauetan lagundu dute: biltegia antolatzen, esterilizazioan, tresna-kaxak prozeduren arabera antolatzen, pazientearen zirkuituak hobetzen, tresneria kirurgikoa (gazak eta konpresak zenbatzea, objektu zorrotzak jartzea eta anesthesiari laguntzea barne) eta abar antolatzen. Etengabeko prestakuntza-saioak egin dira.

Profil hori ebaluatu ondoren, eta bloke kirurgikoko anesthesiako eta erizaintzako langileek parte-hartze handia izan dutenez, beharrezkoa iruditu zaigu ospitalizazioko erizainei lehenetsuna ematea kirurgiako aurretik. Beraz, hemendik aurrera, programa modu jarraituan babesten saiatuko gara plantako 2 erizainekin, eta ez ebakuntza-gelakoekin. Ospitaleko langileek egindako erizaintza kirurgikoko prestakuntza-programa dagoenez, hari laguntzeko prest egongo gara eskatzen diguten neurrian.



KIRURGIA

Diagnostikorako bitartekoak mugatuak direnez, fidagarritasun txikiko analitikekin eta, batzuetan, eskarmentu txikiko langileek egiten dituztenez ekografiak, ohiko patologia kirurgikoa da, modu errazean esanda, eskuekin diagnostikatu daitekeena, hau da, sabeleko pareta, tiroidea, perianala, urologikoa, ginekologikoa eta abdomen akutua (batez ere septikoa, zulaketak eta buxadura).

Jarduera kirurgiko nagusia obstetrikoa da, bereziki zesa-reak. 2022an, eta 2023an igaro den denboran zehar, 800 erditze inguru izan dira hilean, eta erditzeen % 20-25 zesarea bidez izan dira. Aipatzekoa da Obstetria eta Ginekologia zerbitzua dela 3 espezialista dituen zerbitzu bakarra, Venezuelan ikasiak. Horregatik, zerbitzu hori ez zen lehentasunezko zatik jo programaren lehen urtean. Nolanahi ere, larrialdi obstetrikoei jarduera kirurgikoa baldintzatzen dute, eta, beraz, sabeleko zenbait larrialdi atzeratu egin behar dira, eta horrek eragina izan dezake bizi-pronostikoan.

Esan beharra dugu askotan pazienteak gaixotasunaren fase aurreratuetan joaten direla ospitalera, egoera funtzional eta nutrizional eskasean, eta horrek guztiak –tratamenduen hasieran, ebakuntza aurreko prestakuntzan edo interbentzio kirurgikoa gerta daitezkeen atzerapenekin batera– eragina du, logikoa denez, emaitzetan.

Proiektuan sartzen diren profesionalen artean, garrantzitsua da ebakuntza-gelako lana orekatzea larrialdiekin, ebakuntzaren osteko jarraipenarekin (erizaintzarekin lankidetzan aritzea, sendaketak, tratamendua egokitzea, konplikazioei erantzutea, etab.), etengabeko prestakuntzarekin eta kanpo-konsultekin.

HNSMko JARDUERA KIRURGIKOA

ZIRUGIA-URO



OBSTETRIZIA-GINE



ORTO-TRAUMA



■ 2021 ■ 2022





ANESTESIA

Zerbitzuburua da ebakuntza-blokearen eta ebakuntza aurreko kontsultaren arduraduna, eta karteldegia antolatzen ditu. Normalean, teknikarien artean banatzen dituzte larrialdiak, bai erdiko blokekoak, bai amatasunekoak. Logikoa denez, keinuetan eta prozeduretan trebetasuna hartzen joan dira, nahiz eta urria izan paziente kritikora edo premia espezifikoetara egokitzeko duten gaitasuna.

Zerbitzu hau oso motibatuta dauden eta azken urteotan gero eta eskarmentu handiagoa hartu duten mediku zein anesthesiako teknikariez, azken hauek gaitasunei eta formakuntzari dagokionez mugatugoa, osatuta dago.

2023aren hasieran bi arnasgailu berri erosi dira (kirurgia pediatrikorako gaizki egokituak) eta beste batzuk konpondu dira.

Zainketa Intentsiboetako Unitateak Barne-medikuntzako medikuek edo pediatrek kudeatu ohi dituzte, eta txikia da Anestesia eta Bizkortze Zerbitzuaren eragina, ebakuntza ondoko



LABORATEGIA

2022ko azken hiruhilekoan, mikrobiologo batek bertan lanean hasteaz gain, ospitaleko laborategiaren beharren diagnostikoa egin zuen. 2023ko ekainetik aurrera, lanean jarraitzea espero dugu, bereziki honako haueetan laguntzeko:



Laborategiaren edukierarako eta ospitalearen behar klinikoetarako eskaera-orri egokia ezartzen.



Prozedura diagnostiko berriak prestatzen, arreta berezia jarri biokimikaren, hematologiaren eta mikrobiologiaren arloetan.



Lan-prozedura normalizatuak egokitzen laborategiaren analisi-eta asistentzia-kalitatea hobetzeko.



Zirkuitu diagnostikoak optimizatzen, analisi-aurreko, analisiko eta analisi-ondoko faseen bidez.



Kudeaketa orokorra hobetzen eta, gutxienez, laborategiko funtsezko arlo jakin batzuk informatizatzen.

Ospitaleko Kudeaketa Batzordeak biokimikako eta hematologiako ekipo berriak erosi zituen 2023aren hasieran, eta errektiboak eta beste suntsikor batzuk berritu eta ekipo batzuk konpondu dira gure programarekin.

KUDEAKETA

Ospitale-kudeaketari laguntzea da proiektuaren zutabeetako bat eta ospitaleko zuzendaritzak behin eta berri eskatutako lankidetzak beharretako bat.

2023ko apirilean eta maiatzean, Osakidetzako profesional aditu batek ospitalearen diagnostikoa egin zuen kudeaketaren ikuspegitik, eta zenbait erronka estrategiko zedarritu zituen.

1

Paziente bakoitzeko **historia kliniko bakarra** formatu elektronikoa edo paperean, eduki normalizatu, kontrolatu eta uniformearekin.

2

Laguntza-zerbitzuak kudeatzea, eguneroko jardunerako beharrezkoak diren zerbitzuen eta materialen segurtasuna, erabilgarritasuna eta funtzionamendu egokia bermatzeko, hala nola esterilizazioko zentral bakarra, mantentze-lanak, pazienteen elikadura, garbiketa, arropa zuria, erosketak, biltegiak eta produktuen banaketa.

3

Laguntzaren kalitatea: irisgarritasuna (itxaron-zerrendak) eta agendak kudeatzea kanpo-kontsultetan, proba osagarriak eta jardura kirurgikoa, segurtasuna eta kalitate zientifiko-teknikoa (aldakortasun klinikoak, praktika klinikoko gidak, protokoloak, antibiotikoen erabilera optimizatzea, etab.), laguntza humanizatzea (pazientearen konfidentziazasuna eta autonomia, tratuak, komunikazioa, etab.), gogobetetze-inkestak.

4

Zerbitzuen arteko koordinazioa eta zirkuituak eta harremanak: pazienteen deribazioak eta laguntzaren jarraitutasuna eta jarraipena.

5

Informazio-sistemen agente-taula integrala. Estatistikatik hilerok eskaintzen direnez gain, adierazle gehigarriak diseinatzea laguntza-izaerako arloetan eta zerbitzuetan, hala nola ospitalizazioan (guztizko eta zerbitzu bakoitzeko ohe-kopurua, hilkortasuna, txandakatze-indizea, etab.), larrialdietan (paziente-kopurua, ospitaleratutako larrialdien %, ebakuntza-gelara egindako deribazioen %, etab.) eta zerbitzu kirurgikoetan (itxaron-zerrendan dauden pertsonen kopurua eta batez besteko atzerapena, biziraupen-tasa, etab.). Gainera, proposatu da adierazleak diseinatzea pertsoneri (plantilla, absentismoa, prestakuntza, gogobetetzea, etab.) eta unibertso ekonomiko-finantzarioari lotuta.





OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



GOVERNO DA
GUINÉ-BISSAU
MINISTÉRIO DA SAÚDE PÚBLICA



Osakidetza
Servicio vasco de Salud

